

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENeko ETA
TURISMOKO DEPARTAMENTUA**

Gipuzkoa APPs 2013 lehiaketaren oinarri arautzaileak.

«Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen berrikuntzaren eta, batik bat, informazioaren eta komunikazioaren teknologien eragina gizartearen eta ekonomiaren eraldaketan.

IKTen erabilera intentsibo eta eraginkorra funtsezkoa da enpresak eta beren prozesuak eta egiturak eraldatzeko; eta produktibitate eta lehiakortasun helburuak lortzeko. Hala ere, egitura ekonomikoa ezin da modernizatu ez badugu sektore informatiko lehiakor bat: Gainerako sektore tradizionalen eraldaketa sustatzeko beharrezkoak diren aplikazio, tresna, zerbitzu, produktu eta eduki digitalak sortzeko eta erabiltzeko gaitasuna duen sektore informatikoa.

Teknologia informatikoa daude gainerako sektore ekonomikoek garatutako berrikuntza ia guztien atzean: Automozioa, makina-erreminta, turismoa, hezkuntza edo osasuna, besteak beste. Horregatik, teknologia informatikoen aldeko apustua egi-eta produkzio sektore osoaren aldeko apustua egitea da.

Gaur egun, gailu mugikorrek eta, zehazkiago, gailu horietarako diseinatutako aplikazioek paradigma berri bat ekarri digute; eta paradigma horren ezaugarri nagusia da zerbitzu mota orotarako irisgarritasun etengabe eta noahikoa, bai esparru profesionalean, baita pertsonalean ere.

Jarduera eremu horretan, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiak proposatu du Gipuzkoako pertsona fisiko nahiz juridikoen garatutako aplikazio onenak sarituko dituen Gipuzkoa APPs 2013 lehiaketaren deialdia egi-eta.

Diru laguntzen alorrean indarrean dagoen araudiak ez du erregimen berezirik ezartzen sarien inguruan. Onuradunak aldeztu aurretik eskatu gabe ematen direnak bere aplikazio eremutik kenduta, 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, diru laguntzei buruzko orokorrak, aurreikusten du arauz (erregelamendua) ezarriko dela hezkuntza, kultura, zientzia edo beste izatera bateko sariei ezarri beharreko erregimen berezia, eta erregimen hori bat etorriko dela legearen edukiarekin, salbu eta diru laguntzen izaera bereziagatik aplikagarriak ez diren alderdietan.

Nolanahi ere, ez Estatuko araudiak ez Foru Aldundikoak ez dute erregimen berezi hori jasotzen; beraz, sari bakoitzaren oinarrietan zehaztu beharko da dagokion arauketa berezia.

Erabaki honen xedea da, hain zuzen, arauketa hori zehaztea. Horri dagokionez, lehiaketaren gasturik handiena ezaugarri bereziak dituzten sarietarako xedatuko da: Izan ere, sari horiek jada amaituta dauden aplikazioak baloratzen eta saritzen badituzte ere, sari horien dirua ezin dute libreki erabili irabazleek, ezartzen zaien betebeharra baita diru hori saritutako aplikazioak hobetzeko edo merkaturatzeko erabiltzea, edota beste aplikazio batzuk garatzeko. Helburu jakin baterako direnez, sari horiei diru laguntzei buruzko araudia ezar dakieke zenbait puntutan, besteak beste, jasotako zenbatekoaren erabilera zuritu beharra eta zuritu ezean diru kopuru horiek itzuli beharra, etab.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE INNOVACION, DESARROLLO
RURAL Y TURISMO**

Bases reguladoras del Concurso Gipuzkoa APPs 2013.

«El papel de la innovación y, específicamente, de las Tecnologías de la Información y Comunicación para transformar la realidad social y económica es hoy en día indiscutible.

La utilización intensiva y eficiente de las TIC es un factor fundamental para poder transformar las empresas, sus procesos y sus estructuras, y conseguir alcanzar los objetivos de productividad y competitividad. Sin embargo, la modernización del tejido económico no es posible sin la existencia de un sector informático competitivo y capaz de generar y utilizar las aplicaciones, herramientas, servicios, productos y contenidos digitales necesarios para impulsar la transformación del resto de sectores tradicionales.

Las tecnologías informáticas se encuentran detrás de prácticamente la totalidad de las innovaciones desarrolladas por el resto de los sectores económicos, desde la automoción a la máquina herramienta, el turismo, la educación o la salud, por lo que apostar por ellas es hacerlo por el conjunto del sector productivo.

En la actualidad los dispositivos móviles, más específicamente las APPs diseñadas para ellos, están posibilitando un nuevo paradigma caracterizado por la accesibilidad permanente y ubicua a todo tipo de servicios, en los ámbitos profesional y personal.

En ese marco de actuación, desde la Dirección General de Sistemas para la Sociedad de la Información del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo se ha planteado la convocatoria del Concurso Gipuzkoa APPs 2013, destinado a premiar a las mejores APPs desarrolladas por personas físicas o jurídicas de Gipuzkoa.

La normativa vigente en materia de subvenciones no establece un régimen específico en relación con la concesión de premios. Excluidos de su ámbito de aplicación los que se otorgan sin la previa solicitud de la persona beneficiaria, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, prevé que «reglamentariamente se establecerá el régimen especial aplicable al otorgamiento de los premios educativos, culturales, científicos o de cualquier otra naturaleza, que deberá ajustarse al contenido de esta ley, salvo en aquellos aspectos en los que, por la especial naturaleza de las subvenciones, no resulte aplicable».

Ni la normativa estatal ni la foral recogen sin embargo dicho régimen especial, por lo que habrán de ser las bases de cada premio las que establezcan su regulación específica.

Siendo tal el objeto del presente acuerdo, la mayor parte del gasto de este concurso se destina a premios que revisten una característica especial por cuanto, si bien se valoran y premian aplicaciones ya finalizadas, el importe de dichos premios no constituye una retribución dineraria de libre uso por las personas o entidades premiadas, sino que se establece la obligación de su destino a la mejora o comercialización de las APPs premiadas o al desarrollo de otras nuevas. Dicho carácter finalista determina la aplicación plena a tales premios de la normativa de subvenciones en aspectos tales como la justificación del destino dado al importe correspondiente, la posible exigencia del reintegro en casos de ausencia de dicha justificación, etc.

Ondorioz, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo-ko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabai-datu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Onartzea Gipuzkoa APPs 2013 lehiaketaren oinarri arautzaileak: Erabaki honen eranskinean jaso direnak.

Bigarren. Baimentzea guztira hogeita hamar mila euroko gastua (30.000 €) oinarri horietan aurreikusitako sarien finantzazioari aurre egiteko, modu honetan banatuta:

— 21.000 euro lehiaketaren oinarri arautzaileen 5.a) atalean aurreikusitako sarientzat (profesionalak), 1.0620.200.770.00.03.2013 (14.000 €) eta 1.0620.200.781.00.01.2013 (7.000 €) kontu sailen kargura.

— 9.000 euro lehiaketaren oinarri arautzaileen 5.b) eta 5.c) ataletan aurreikusitako sarientzat (amateurrak eta sari berezia politika horizontalak bultzatzeagatik, hurrenez hurren), 1.0620.200.480.00.01.2013 kontu sailaren kargura.

Hirugarren. Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzen hartutako beste edozein ere aurkez daitezke».

Donostia, 2013ko maiatzaren 15a.—Alfonso Acarreta Rodríguez, idazkari teknikoa.

(3469)

(4944)

ERANSKINA

Gipuzkoa APPs 2013 lehiaketaren oinarri arautzaileak.

1. Helburuak.

Oinarri hauetan aipatzen diren sariekin honako helburu hauek lortu nahi dira:

1. Gipuzkoako informatikako teknologien sektorearen eraberrikuntza sustatzea; eta gailu mugikorren aplikazioen merkaturaren sartzeta.

2. Gipuzkoan garatutako aplikazioak ezagutzera ematea.

3. Gipuzkoako informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) sektorean talentu berria sartzeta bultzatzea: Gailu mugikorren teknologietan adituak diren profesionalak.

2. Parte hartzaileak.

Lehiaketak Gipuzkoako pertsona fisiko zein juridikoek egindako aplikazio onenak sarituko ditu. Horrenbestez, bi parte hartzaile mota ezarri dira:

a) Profesionalak: Informatikako teknologien sektorean lan egiten duten enpresak eta profesionalak; eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (RVCTI) zentroak eta unibertsitateak.

En consecuencia, a propuesta del diputado foral del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo y, previa deliberación, el Consejo de Diputados

ACUERDA

Primero. Aprobar las bases reguladoras del Concurso Gipuzkoa APPs 2013, que se adjuntan como anexo al presente acuerdo.

Segundo. Autorizar un gasto por importe total de treinta mil euros (30.000 €) para la financiación de los premios previstos en dichas bases, según la siguiente distribución:

— 21.000 euros para los premios previstos en el apartado 5.a) de las bases reguladoras del concurso (profesionales), con cargo a las partidas presupuestarias 1.0620.200.770.00.03.2013 (14.000 €) y 1.0620.200.781.00.01.2013 (7.000 €).

— 9.000 euros para los premios previstos en los apartados 5.b) y 5.c) de las bases reguladoras del concurso (amateurs y premio especial por el impulso de políticas horizontales, respectivamente), con cargo a la partida presupuestaria 1.0620.200.480.00.01.2013.

Tercero. Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía, las personas particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Diputados en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno».

San Sebastián, a 15 de mayo de 2013.—Alfonso Acarreta Rodríguez, idazkari teknikoa.

(3469)

(4944)

ANEXO

Bases reguladoras del Concurso Gipuzkoa APPs 2013.

1. Objetivos.

Con los premios a los que se refieren las presentes bases se persiguen los siguientes objetivos:

1. Impulsar la renovación del sector de las tecnologías informáticas de Gipuzkoa, promoviendo su incorporación al mercado de soluciones para dispositivos móviles, APPs.

2. Contribuir a difundir las APPs desarrolladas en Gipuzkoa.

3. Promover la incorporación al sector TIC de Gipuzkoa de nuevo talento: Profesionales con conocimiento experto en tecnologías para dispositivos móviles.

2. Participantes.

El concurso premiará a las mejores APPs desarrolladas por personas físicas o jurídicas de Gipuzkoa, estableciéndose dos tipologías de participantes:

a) Profesionales: Empresas y personas que desarrollen su actividad profesional dentro del sector de las tecnologías informáticas, así como centros de la RVCTI y universidades.

b) Amateurrak: Informatikako teknologien sektorean bere kontura lan egiten ez duten pertsonak edo taldeak. Parte hartzaileak adinez nagusiak izango dira.

Parte hartuko duten pertsona fisiko edo juridikoez egiaztatu beharko dute gipuzkoarrak direla; eta, hala balegokio, adinez nagusiak direla. Taldeen kasuan, kide guztiek egiaztatu beharko dituzte lehiaketan parte hartzeko baldintzak.

Ezingo dute parte hartu administrazio eta entitate publikoek, ezta horiek partaidetzaren gehiengoan duten enpresek ere.

Parte hartzaileak ez dira aurkitu behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean.

3. Mailak.

Parte hartzaile mota bakoitzeko bi proiektu maila ezartzen dira:

- Enpresarako aplikazioak.
- Aplikazio orokorrak (gizarte edo herritarren erabilerrako, aisialdirako).

Epaimahaiak behar den bezala ebaluatzeko aukera izan dezan, aplikazioaren garapena bukatuta egon beharko da lehiaketarako, nahiz eta ondoren hobekuntzak ezarri.

Merkatuan gehienez ere urte bete daramaten produktuak aurkeztu ahal izango dira, oinarri hauek argitaratzen diren unera arte kontatuta.

Lehiaketara aurkezten diren unean, aplikazioak, gutxienez, euskaraz erabilgarriak izango dira.

4. Hautagaien aurkezpena.

4.1. Parte hartzaileak.

Pertsona edo entitate bakoitzak aplikazio bat baino gehiago aurkez dezake baina banakako hautagai gisa.

Entitateen kasuan, legez ezarritako moduetakoren batean entitatearen ordezkariak egiaztatzen duen pertsonak egingo du eskaera.

Taldeen kasuan, eskaeran espresuki azalduko dira pertsona bakoitzak hartutako exekuzio konpromisoak; eta ordezkari bat izendatu beharko da, onuradun gisa taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena.

4.2. Aurkezteko epea.

Lehiaketan parte hartzeko inskripzio epea oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da; eta 2013ko irailaren 12an bukatuko da.

4.3. Aurkezpen modua.

Eskaera eta horri erantsitako dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira lehentasunez: Gipuzkoako Foru Aldundiko «Diru laguntzen atarian» (www.gipuzkoa.net/dirulaguntzak).

Internet bidez aurkeztetakoan, honako arau hauek xedatutakoa bete behar da: 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzekoa; eta 2006ko irailaren 12ko 40/2006

b) Amateurs: Personas o grupos de personas que no ejercen, por cuenta propia, su actividad profesional dentro del sector de las tecnologías informáticas. Las personas participantes deben ser mayores de 18 años de edad.

Las personas físicas o jurídicas participantes deben acreditar su condición de guipuzcoanas y, en su caso, su mayoría de edad. En el caso de grupos de personas, todas ellas deberán acreditar el cumplir con los requisitos de participación en el concurso.

No podrán participar en el concurso las Administraciones y entidades públicas, ni las empresas participadas mayoritariamente por éstas.

No deberá concurrir en las personas participantes ninguna de las circunstancias previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. Categorías.

Por cada una de las tipologías de participantes, se establecen dos categorías de proyectos:

- APPs con destino a la empresa.
- APPs de carácter genérico (para uso social o ciudadano, ocio,).

A fin de que puedan ser debidamente evaluadas por el jurado, el desarrollo de las APPs deberá estar finalizado en el momento de su presentación al concurso, con independencia de que puedan incorporar mejoras posteriores.

Podrán presentarse productos con una antigüedad en el mercado no superior al año, contado hasta el momento de la publicación de las presentes bases.

Las APPs que se presenten deberán poder ser usadas, al menos en euskera, en el momento de la presentación al concurso.

4. Presentación de candidaturas.

4.1. Participantes.

Cada persona o entidad podrá presentar candidatura para varias aplicaciones, pero deberá hacerlo de forma individualizada.

En el caso de entidades, la solicitud se suscribirá por la persona que acredite la representación de la entidad interesada por cualquier medio válido en derecho.

En el caso de grupos de personas, en la solicitud deberán hacerse constar expresamente los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro, y deberán nombrar una persona representante con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como persona beneficiaria, corresponden al grupo.

4.2. Plazo de presentación.

El periodo de inscripción en el concurso comenzará el día siguiente al de la publicación de las presentes bases en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa; y terminará el día 12 de setiembre de 2013.

4.3. Forma de presentación.

La solicitud y la documentación que se adjunte se presentarán preferentemente por medios electrónicos, a través del «Portal de subvenciones» de la Diputación Foral de Gipuzkoa (www.gipuzkoa.net/subvenciones).

Esta presentación vía Internet se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral y el Decreto Foral 40/2006,

Foru Dekretua, Foru Administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkari-tza egiaztatzea arautzen duena.

Era berean, dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko edozein erregistro bulegotan aurkez daitezke; baita 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4. artikuluan aipatzen dituen tokietan edo bertan aipatzen diren bideak erabiliz ere.

Sinadura elektronikorik, pasahitzik edo aurkezpen telematikoa egiteko baliozkoa den bestelako identifikazio modurik eduki ezean, arestian aipatu aplikazio informatikoaren bidez eskaera egiten duen entitateak aplikazio informatikoaren bidez eskuratu daitezkeen eskaera orria aurkeztu beharko du: Entitateko ordezkariak sinatuta. Modu horretan nortasuna egiaztatu ondoren, aplikazio informatikoan erregistratutako izango da baliozko aurkezpen data.

Emandako helbide elektronikoen funtzionamendu egokia ziurtatu beharko du pertsonak edo entitateak: Eskaerari buruzko komunikazio operatiboak posta elektronikoz egingo baitira lehentasunez.

Hautagaiak EAEko bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

4.4. Eskaeraren edukiera.

Gipuzkoa APPs lehiaketan parte hartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko «Diru laguntzen atarian» (www.gipuzkoa.net/dirulaguntzak) dagoen izen emateko orria bete beharko da; eta proiektuaren memoria bat erantsi, gehienez ere 10 orrialdetakoa, ondorengo informazioarekin:

1. Proiektuaren izena (aplikazioaren izena).
2. Aurkezten den proiektu maila (epaimahaiak maila aldatu ahal izango du, egokia iruditzen bazaio).
3. Proiektua aurkezten duten enpresa edo pertsonen identifikazio datu osoak, baita gipuzkoarrak izatea egiaztatzen duten agiriak ere.
4. Aplikazioaren deskribapena:
 - Konpontzen duen egoerari edo onuradun izango den jendeari buruzko deskripzio laburra (inpaktua, etab.).
 - Aplikazioaren funtzionaltasunari buruzko deskripzio laburra.
 - Proiektua besteetatik bereizten duten arrazoiei buruzko deskripzio laburra.
 - Aplikazioaren pantaila batzuk.
5. Irtenbide informatikoa implementatzeko behar den informazioa.
 - Aplikazioaren funtzionamendua.
 - Epaimahaiak aplikazioa probatzeko behar dituen jarraitibideak
6. Informazio gehigarria: Proiektuarekin zerikusia duten bideo, web orri edo antzekoetarako loturak.

Internet bidez aurkezterakoan, «pdf konprimatua» formatua erabili beharko da, gehienez ere 10 MB-ko tamainakoa; proposamenak tamaina hori gainditzen badu, PDFren ordez proiektu osoa jasota dagoen URL helbidea aurkeztuko da, epaimahaiak proposamena deskargatu ahal izateko.

Profesional mailari dagokionez, ezinbestekoa da demo gisako bideo bat aurkeztea, 2 minutuko iraupena izango duena gehienez, aplikazioaren funtzionaltasunak ikusteko. Amateur mailari dagokionez, bideoa aurkeztea hautazkoa da.

de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

Igualmente, podrán presentarse en cualquiera de los registros de la Diputación Foral de Gipuzkoa y por los demás medios y en los lugares señalados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En el caso de carecer de firma electrónica, clave operativa o de algún otro medio de acreditación de la identidad válido para la presentación telemática, la persona o entidad que efectúe su solicitud a través de la aplicación informática antes citada deberá presentar, firmado por quien la represente, el impreso de solicitud que facilitará la aplicación. Acreditada la identidad de este modo, se tomará como fecha válida de presentación la registrada en la aplicación informática.

La persona o entidad deberá responsabilizarse del correcto funcionamiento de las direcciones de correo electrónico que facilite, ya que, preferentemente, la comunicación operativa sobre la solicitud se realizará vía e-mail.

Las candidaturas pueden ser presentadas en cualquiera de las lenguas oficiales de la CAPV.

4.4. Contenido de la solicitud.

Para presentar una candidatura en el concurso Gipuzkoa APPs se tendrá que cumplimentar el formulario de participación que se encuentra disponible en el «Portal de subvenciones» de la Diputación Foral de Gipuzkoa (www.gipuzkoa.net/subvenciones), y adjuntar una memoria del proyecto, que no deberá exceder de 10 páginas, con la siguiente información:

1. Título del proyecto (nombre de la aplicación).
2. Categoría a la cual se presenta (El jurado podrá modificar la categoría si lo considera oportuno).
3. Datos completos identificativos de la empresa o personas que presentan el proyecto, así como la acreditación de su condición de guipuzcoanas.
4. Descripción de la aplicación:
 - Breve descripción de la situación que resuelve o la población que beneficia (impacto, etc.).
 - Breve descripción de la funcionalidad de la aplicación.
 - Breve descripción de las razones por las cuales el proyecto se diferencia de los demás.
 - Capturas de pantalla de la aplicación.
5. Información necesaria para implementar la solución.
 - Funcionamiento de la aplicación.
 - Instrucciones para el jurado para probar la aplicación.
6. Información adicional: Enlaces a videos, webs o similares que se refieran al proyecto.

En la presentación vía Internet, el formato debe ser un pdf comprimido que no superará los 10 MB; en el caso de que la propuesta en su conjunto supere dicho tamaño, el envío de la información que exceda podrá sustituirse por la URL que aloja todo el proyecto, para que el jurado pueda descargar la propuesta.

En el caso de la categoría profesional, será imprescindible la presentación de un vídeo a modo de demo para ver las funcionalidades de la aplicación; éste no podrá ser superior a 2 minutos de duración. En el caso de la categoría amateur, la presentación del vídeo será opcional.

Eskatutako informazio hori bakarrik bidali beharko da, salbu eta epaimahaiak berariaz besterik eskatzen ez duen.

Aurkeztutako dokumentazioa ez da bueltatuko eta horri buruz ez da korrespondentziarik izango.

Eskaeran edo eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioan identifikazioko datuak ez badira jarri, akatsak egin badira edo osatu gabe utzi badira, oker dagoena 10 eguneko epean zuzendu dezan eskatuko zaio eskatzaileari, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki; eta adieraziko zaio ezen hori egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatuta legearen 42.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5. Sariak.

Kategoria bakoitzeko eta parte hartzailearen tipologiaren arabera sari bana emango da; gehi epaimahaiaren sari berezia. Sarien kopuruak honako hauek dira:

a) Profesionalak:

— 7.000 €, entitate batentzat garatutako aplikazio onenari.

— 7.000 €, enpresa izaera duen aplikazio onenari.

— 7.000 €, gizarte edo herritar izaera duen aplikazio onenari.

b) Amateurrak:

— 3.000 €, enpresarako aplikazio onenari.

— 3.000 €, gizarte edo herritar izaera duen aplikazio onenari.

c) 3.000 euroko sari berezia emango zaio, epaimahaiaren ustez, Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatzen dituen politika horizontaletako bat (giza eskubideak, dibertsitatea, euskara, berdintasuna, ingurumena eta herritarren partaidetza) bereziki bultzatzen duen aplikazioari.

Pertsona edo entitate berak ezin izango du sari bat baino gehiago jaso deialdi honetan. Beste lehiaketetan saria jaso duten aplikazioek ezingo dute parte hartu.

Epaimahaiak proposa dezake dezake sari horietakoren bat eman gabe uztea.

6. Sariaren xedea.

Profesional mailan emandako sariak (5.a atala), produktua hobetzeko, merkaturatzeko edo beste aplikazio bat garatzeko erabiliko da; entitate batentzat garatutako aplikazioa bada, saria aplikazio berri bat garatzeko erabiliko da. Kopurua aplikazio berriak garatzeko erabiltzen bada, datorren urteko lehiaketan aurkeztuko dira aplikazio horiek.

Lehenengo paragrafoan aipatutako sarien irabazleek zuritu behar dute sariok erabili dituztela aipatu paragrafoan ezarritako xedearako. Hori horrela, gastuen kontu zurigarria aurkeztu beharko dute 2014ko uztailaren 15a baino lehen, gutxienez, jasotako sariaren kopurua zurituko duena. Kontu zurigarri horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzen Foru Arauaren Erregelamenduak -2008ko apirilaren 29ko Foru Dekretuaren bidez onartutakoak- 52. artikuluan aurreikusten duen edukia izango du: A) jarduera memoria; b) gastuak sailkatzen dituen zerrenda; c) jarduera hori bera finantzatu duten beste sarrera edo laguntzen zerrenda; d) erabili ez diren soberakinak badaude, itzulketaren ordainagiria, baita soberakinetatik ondorioztatutako interesena ere.

En ningún caso, salvo expresa petición del jurado, deberá remitirse otra información que la solicitada anteriormente.

La documentación presentada no será devuelta, ni se mantendrá correspondencia sobre la misma.

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de la citada ley.

5. Premios.

Se concederá un premio por cada categoría y tipología de participante, así como un premio especial del jurado, con los siguientes importes.

a) Profesionales:

— 7.000 € a la mejor APP desarrollada a medida para una entidad.

— 7.000 € a la mejor APP de carácter empresarial.

— 7.000 € a la mejor APP de carácter social o ciudadano.

b) Amateurs:

— 3.000 € a la mejor APP con destino a la empresa.

— 3.000 € a la mejor APP de carácter social o ciudadano.

c) Se concederá un premio especial de 3.000 € a la APP que, a juicio del Jurado, mejor contribuya al impulso de alguna de las políticas horizontales con las que está implicada la Diputación Foral de Gipuzkoa (derechos humanos, diversidad, euskera, igualdad, medio ambiente y participación ciudadana).

La misma persona o entidad no podrá obtener más de un premio en esta convocatoria. No podrán concursar APPs que hubieran sido ya premiadas en otros concursos.

El Jurado podrá proponer declarar desierto cualquiera de los premios.

6. Carácter finalista.

En el caso de la categoría profesional (apartado 5.a), los premios deberán ser aplicados a la mejora del producto, a la comercialización del mismo, o al desarrollo de otro nuevo; en el caso de APPs desarrolladas específicamente para una entidad, el contenido del premio deberá aplicarse en el desarrollo de una nueva APP. En el caso de que el importe se aplique al desarrollo de nuevas APPs, éstas deberán ser presentadas en el certamen del siguiente año.

Las personas o empresas ganadoras de los premios señalados en el párrafo anterior habrán de justificar su aplicación a las finalidades indicadas en dicho párrafo mediante la presentación, con anterioridad al 15 de julio de 2014, de la correspondiente cuenta justificativa de gastos por un importe mínimo equivalente al del premio recibido. Esta cuenta tendrá el contenido previsto en el artículo 52 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril: A) memoria de actuación; b) relación clasificada de gastos; c) detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad; d) en su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.

Kontu zurigarria aurkezten ez bada, sariaren kopuru osoa edo zati bat itzuli beharko da, gehi berandutza interesak, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 35. artikulua eta indarrean dagoen gainerako araudi aplikagarriak ezartzen duten bezala.

7. *Epaimahaia.*

Sariak emateko lehiakortasun prozedura erabiliko da. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak izendatutako epaimahai batek aplikazioak aztertu eta baloratuko ditu; epaimahaiakideak informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorrean ospe handiko pertsonak izango dira, eta horien izenak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira jakitera emateko.

8. *Balorazio irizpideak.*

Epaimahaiko kideek proiektuak baloratuko dituzte, bakoitza bere mailan, ondorengo irizpideei jarraituz:

- Baliagarritasuna: Benetako behar bati erantzutea.
- Erabilgarritasuna: Erabiltzaile esperientzia.
- Dakarren berrikuntza.
- Duen funtzionalitate maila.
- Aplikazioa zer plataformarako garatu den.
- Merkaturatzeko aukerak.

9. *Proiektuen analisia eta epaimahaiaren emaitza.*

Sariak emateko ekitaldi publiko bat antolatuko da.

Epaimahaiko kideek proiektuak aztertu eta sarituak proposatuko dituzte; eta profesional mailaren kasuan, finalistak hautatuko dituzte.

Sariak emateko ekitaldian, epaimahaiak profesionalen kategoriako finalista diren pertsonen edo entitateen 3 minutuko epea emango die proiektuak aurkezteko eta epaimahaiaren galderak erantzuteko, epaimahaiak lanen azkeneko azterketa egin ahal izan dezan.

Epaimahaiak kideen gehiengo soilaz hartuko ditu erabakiak; berdinketa gertatuz gero, lehendakariak erabakiko du.

Epaimahaiaren emaitza loteslea da.

10. *Ebazpena.*

Sariak emateko eta ordaintzeko ebazpena Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko foru diputatuari dagokio; ebazpen hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

11. *Baldintza orokorrak.*

Proiektuak lehiaketara aurkezteak berekin dakar lehiaketaren oinarriak eta pribatutasun eta komunikazio politika onartzea.

Epaimahaiaren erabakiak behin betikoak eta lotesleak izango dira lehiaketarekin zerikusia duten alderdi guztietan.

Oinarrien interpretazioan edozein zalantza sortuz gero, epaimahaiaren iritzia nagusituko da; edo, bere kasuan, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiarena.

La falta de dicha justificación dará lugar al reintegro total o parcial del importe del premio y al pago de los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, y demás normativa aplicable.

7. *Jurado.*

La concesión de los premios se efectuará en régimen de concurrencia competitiva. A tal efecto, las APPs serán analizadas y valoradas por un Jurado formado por personalidades de reconocido prestigio en el ámbito de las tecnologías de la información y la comunicación, que designará el Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y cuya composición se dará a conocer mediante su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

8. *Criterios de valoración.*

Las personas del jurado valorarán los proyectos, dentro de cada categoría, atendiendo a los siguientes criterios:

- Utilidad: Solución a una necesidad real.
- Usabilidad: Experiencia de usuario.
- Innovación que presentan.
- Nivel de funcionalidades que posea.
- Plataformas para las que se haya desarrollado.
- Posibilidades de comercialización.

9. *Análisis de los proyectos y fallo del Jurado.*

La concesión de los premios se realizará en un evento de carácter público.

Las personas miembros del Jurado analizarán los diversos proyectos y propondrán la adjudicación de los premios, y la determinación de finalistas en el caso de la categoría de profesionales.

En el acto de concesión de premios, el Jurado podrá determinar que las personas o entidades finalistas de la categoría profesional dispongan de 3 minutos para exponer sus proyectos y someterse a las preguntas del Jurado, a fin de posibilitar la última evaluación de los mismos.

El Jurado tomará sus decisiones por mayoría simple de sus miembros; en caso de que se produjera empate a votos, el presidente o presidenta dispondrá de la facultad para resolver.

El fallo del Jurado tendrá carácter vinculante.

10. *Resolución.*

La resolución de concesión y abono de los premios corresponderá al diputado foral del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo y será objeto de publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

11. *Condiciones generales.*

La presentación de proyectos al concurso conlleva la aceptación por parte de las personas o entidades participantes a aceptar los términos de sus bases, así como su política de privacidad y comunicación.

Las decisiones del Jurado serán definitivas y vinculantes en todos los aspectos relacionados con el concurso.

Ante cualquier duda que pueda surgir en la interpretación de las presentes bases, prevalecerá el criterio del Jurado o, en su caso, el de la Dirección General de Sistemas para la Sociedad de la Información del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.

Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiak parte hartzea uka diezaieke baldintzak betetzen ez dituzten edo lehiaketaren espiritua urratzen duten pertsona edo entitateei.

Parte hartzen duten pertsona eta entitateek bermatuko dute lehiaketan aurkeztutako edukien sortzaile direla eta jabetza intelektualaren eskubide guztien jabe direla, inolako kargarik eta mugapenik gabe. Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiak kanporatu ditzake baldintza horiek betetzen ez dituzten parte hartzaileak; eta eragindako kalteengatik ere erantzukizuna eska diezaieke.

Eduki iraingarriak edo legez kanpoko erreferentziak dituen aplikazioa baztertu egingo da; baita Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen dituen politika horizontaletakoren bat urratzen duena ere: Giza eskubideak, dibertsitatea, euskara, berdintasuna, ingurumena eta herritarren partaidetza.

12. Irudi eskubideen lagapena.

Finalista edo irabazle suertatzen diren pertsona edo entitateek baimena ematen diote Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiari (doakoa eta ezeztazina) bere irudia eta irabazle izan den produktuarena, baita bere datuak ere, erabiltzeko idatzizko edo ikus-entzunezko edozein bitartekoren bidez egiten den publizitate, ohar edo komunikazioetan, mundu osoan eta legez ezarritako denbora guztian. Horretarako, beharrezkoak diren agiri edo baimen oro izenpetzeko konpromisoa hartzen dute.

13. Sarien bateragarritasuna.

6. oinarrian aipatzen diren sariak bateragarriak izango dira beste edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, helburu bera lortzeko emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, jardueraren kostua ez bada gainditzen (saritutako aplikazioa hobetzea, merkaturatzea edo beste berri bat garatzea); eta beste laguntzen araudia eragotzi gabe.

14. Informazioa eta argibideak.

Deialdiaren informazioa eskuragarri egongo da Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiko web orrian: gipuzkoaikt.igipuzkoa.net.

Edozein kontsulta edo iradokizunerako, interesdunek lehiaketaren koordinatzaileekin harremanetan jartzeko honako bideak dituzte:

- Web orria: gipuzkoaikt.igipuzkoa.net
- Helbide elektronikoa: jeizagirre@gipuzkoa.net
- Telefonoa: 943.113.989.
- Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusia.

Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentua. Gipuzkoa plaza, z. g. 20004 - Donostia.

15. Araubidea.

Oinarri arautzaile hauen xede diren sariei, oinarri hauetan ezarritakoaz gain, ondorengo hauek aplikatuko zaizkie: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa; Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua (2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartutakoa); eta diru laguntzei buruzko gainerako araudia.

La Dirección General de Sistemas para la Sociedad de la Información se reserva el derecho de rechazar la participación de cualquier persona o entidad que no cumpla con los términos de participación o contravenga el espíritu de la competición.

Las personas y entidades participantes garantizarán que son las creadoras originales que poseen exclusiva propiedad, libres de toda carga o limitación, de todos los derechos de propiedad intelectual de los contenidos presentados al concurso. La Dirección General de Sistemas para la Sociedad de la Información podrá excluir a cualquier participante que infrinja lo anterior, sin perjuicio de la exigencia de responsabilidades por los perjuicios que pudiera ocasionar.

La aplicación presentada a concurso no podrá tener contenidos ofensivos, referencias contrarias a la legalidad, ni que contravengan alguna de las políticas horizontales con las que está implicada la Diputación Foral de Gipuzkoa: Derechos humanos, diversidad, euskera, igualdad, medio ambiente y participación ciudadana.

12. Cesión de derechos de imagen.

Las personas o entidades que resulten finalistas o ganadoras autorizan de forma irrevocable y gratuita a la Dirección General de Sistemas para la Sociedad de la Información para hacer uso de su imagen y la del producto ganador, así como de sus datos en cualquier publicidad, aviso o comunicación que se realice a través de cualquier medio escrito o audiovisual, en todo el mundo y durante todo el tiempo permitido legalmente. Y se comprometen a suscribir cualesquiera documentos o autorizaciones que pudieren ser necesarios para dicho uso.

13. Compatibilidad con otras ayudas.

Los premios a que hace referencia la base 6 serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera otras administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que no se rebase el coste de la actuación (mejora o comercialización de la APP premiada o desarrollo de una nueva), y sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras ayudas concurrentes.

14. Información y consultas.

La información de la convocatoria estará disponible en la página web de la Dirección General de Sistemas para la Sociedad de la Información: gipuzkoaikt.igipuzkoa.net.

Para cualquier consulta o sugerencia, las personas interesadas podrán ponerse en contacto con la coordinación del concurso por los siguientes medios:

- Web: gipuzkoaikt.igipuzkoa.net
- Correo electrónico: jeizagirre@gipuzkoa.net
- Teléfono: 943.113.989.
- Dirección General de Sistemas para la Sociedad de la Información.

Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo. Plaza de Gipuzkoa s/n. 20004 - San Sebastián.

15. Régimen jurídico.

Los premios objeto de las presentes bases reguladoras se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones.